

Gipuzkoako Foru Diputazioa
1998:
Garraio eta Errepide Saila

Diputación Foral de Gipuzkoa
1998:
Departamento de Transportes
y Carreteras

AURKIBIDEA/ÍNDICE

Sarrera	4
I. Garraio eta Errepide Departamentua	5
II. 10. Programa. Errepide Zuzendaritza	7
II.1 Alderdi orokorrak	7
II.2 Ondorioak	10
III. 21. Programa. Errepide eraikuntza eta hobekuntza	12
III.1 Alderdi orokorrak	12
III.2 Ondorioak	14
IV. 22. Programa. Errepideen zainketa eta ustiapena	19
IV.1 Alderdi orokorrak	19
IV.2 Ondorioak	20
V. Bestelako programa apalagoak	22
V.1 Alderdi orokorrak	22
V.2 Ondorioak	22
 Introducción	 23
I. Departamento de Transportes y Carreteras	24
II. Programa 10. Dirección de Transportes	26
II.1 Aspectos generales	26
II.2 Conclusiones	29
III. Programa 21. Construcción y Mejora de Carreteras	31
III.1 Aspectos generales	31
III.2 Conclusiones	33
IV. Programa 22. Conservación y Explotación de Carreteras	38
IV.1 Aspectos generales	38
IV.2 Conclusiones	39
V. Otros programas menores	41
V.1 Aspectos generales	41
V.2 Conclusiones	41

Anexos 42

- A1 Organigrama y plantilla42
- A2 Gastos43
- A3 Créditos de compromiso46
- A4 Ingresos47

Vitoria-Gasteiz, 2000ko azaroaren 20a
Vitoria-Gasteiz, 20 de noviembre de 2000


SARRERA

Txosten hau Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren/HKEE 1999ko martxoa eta 2000ko martxoa bitarteko Urteko Lan Programaren barruan dago sartua, eta honako kontu hauek izan ditu aztergai:


- Gipuzkoako Foru Aldundiko-GFA Garraio eta Errepide Departamentuaren jarduera 1998. urtean zehar, eta
- errepide plangintzen gauzatzea 1999ko abendura arte.

Departamentuaren gastua 12.640 milioi pezetakoa izan zen 1998an, hau da, GFaren gastuaren %23, eta egindako inbertsioak 10.239 milioi pezetakoak, hots, GFAk ekitaldi horretan egindako inbertsio osoaren %63.

GFA: 98ko GASTUAK



GFA: 98ko INBERTSIOAK



Txosten honen helburua Garraio eta Errepide Departamentuaren kudeaketa deskribatzea eta aztertzea da, aurrekontuetan eta urtearteko ekintza plangintzetan (errepide plangintzak) aurreikusitako jarduerak abiapuntutzat hartuz. Horretarako, I. idatz zatian Departamentuaren datu orokorrak deskribatzen dira: zereginak, egitura organikoa, aurrekontu programak eta 1998ko ekitaldiko gastuak.


Horren ondotik, Departamentuaren hiru lan-programa nagusiak aztertzen dira, jarduerak deskribatu eta haiek hobetzeko hainbat proposamen eginez. Eta, idatz zati bakoitzean, programa bakoitzaren inguruan Aurrekontuan eta Kontu Orokorrean aurkezten den informazioaren kalitatea baloratzen duen atal bat jasotzen da.

I. GARRAIO ETA ERREPIDE DEPARTAMENTUA

Egitura organikoa

Garraio eta Errepide Departamentuaren egitura organikoa honako hau zen 1998. urtean (2000. urteko ekitaldian aldatu egin da):

EGITURA ORGANIKOA



OHARRA: zenbakiak unitate organikoa zein aurrekontu programari dagokion adierazten dute.

Zereginak

- Garraio Zuzendaritzaren zeregina Gipuzkoako lurraldean barrena errepidez egiten den merkantzia eta bidaiarien garraio zerbitzuak planifikatzea eta kontrolatzea da.
- Errepide Zuzendaritza errepide berriak egiteaz eta dauden errepideak zaintzeaz arduratzen da. Gainera, bere egituraren barruan azpizuzendaritza bat dauka, plangintza lanaz eta desjabetzapenak egiteaz arduratzen dena.
- Idazkaritza Teknikoa Foru diputatuaren menpe dago zuzenean eta lege araudia garatzeaz, lege aholkularitza emateaz eta langileriaren, aurrekontuaren eta kontularitzaren kudeaketaz arduratzen da.


Programak eta aurrekontuaren exekuzioa

Hau izan da sail honetako aurrekontu programen exekuzioa 1998. urtean:

AURREKONTUAREN EXEKUZIOA		Milioi pezeta							
Programak	Plantilla (*) Eranskinak > A1	Gastuak (O fasea)					Etork.gast. (D fasea)		Sarreak A4
		1. kap.	2. kap.	6. kap.	4. eta 7.k.	Guztira A2	A3		
10. Garraio Zuzendaritza	17	87	10	38	999	1.134	-	120	
21. Errepide eraikuntza eta hobekuntza	29	209	11	7.087	25	7.332	7.875	1.179	
22. Errepideen zainketa eta ustiapena.....	93	457	296	3.029	-	3.782	2.443	149	
Bestelako programa apalagoak									
01. Zerbitzu Orokorrak	19	112	19	39	-	170	-	-	
20. Errepide Zuzendaritza	8	46	33	26	27	132	-	-	
23. Lurzoruaren plangintza eta kudeaketa	9	67	3	20	-	90	-	1	
Departamentua, guztira	175	978	372	10.239	1.051	12.640	10.318	1.449	

(*) Batezbesteko plantilla eraginkorra, edo 1998an programarako lan egiten zutenen kopurua.

GASTUA



II. 10 PROGRAMA. GARRAIO ZUZENDARITZA

II.1 ALDERDI OROKORRAK

10. programak, Garraio Zuzendaritza, 1.134 milioi pezetako gastua izan zuen 1998. urtean, hau da, sailaren aurrekontuaren %9. Zuzendaritza honetan 17 lagunek egiten dute lan eta gastu nagusia emandako dirulaguntzek osatzen dute (ikusi A2 eranskina):

98ko DIRULAGUNTZAK	Milioi pezeta		
	Mota	Gastu exekutatua (O fasea)	konpro- misuak (D - O)
Tolosaldea, SL, linea defizitarioak	Izenduna	33	8
A-8 autobidearen bidesari soziala	83/97 FD	724	-
Bestelako dirulaguntza txikiagoak		4	7
Transf. eta dirulaguntza korronteak		761	15
Udalak, autobus geltokiak	28/96 FD	30	25
Enpresak, autobusak modernizatzea	29/96 FD	153	77
Goierrialdea SL, inplantazio gastuak	Izenduna	29	-
Tolosaldea SL, autobusak modernizatzea	Diputatuen K. erabakia	26	-
Transf. eta kapital dirulaguntzak		238	102
Dirulaguntzak, guztira		999	117

Bidaiarien garraiorako linea erregularren emakidak

Garraio Zuzendaritzak ibilbide osoa edo gehiena Gipuzkoan barrena egiten duten autobusen herri arteko lineen emakidak kontrolatzen ditu, eta enpresa emakidadunei laguntzak ematen dizkie ibilgailuak modernizatzeko eta elbarriek erabiltzeko moduan egokitzeko.

Emakidadunek ez diote Aldundiari inolako diru kopururik ordaintzen, ez eta bere eskutik, goian aipatutako dirulaguntzez gain, inolako diru kopururik jasotzen ere, bi salbuespenekin:

- Tolosaldea Bus, SL: 41 milioi pezetako laguntza dauka, elkarrengandik aldendu samar dauden herri txikiz osatutako eskualdea izateak sortarazten dion defizita orekatzeko, eta 26 milioiko beste bat autobusak berritzeko.
- Goierrialdea, SL: 1997an berrantolatu zen eta 1998. urtean 29 milioiko laguntza berezia jaso zuen, ezarpenaren ondorioz sortarazitako hasierako gastuei aurre egiteko.

AUTOBUS LINEEN EMAKIDAK

Emakida	Emakidaduna	Emakida edo berrantolaketa urtea	azken urtea
BERRANTOLATUTAKO LINEAK			
Goierri	Goierrialdea, SL	97	09
Oñati - Bilbao - Leioa (*)	Transportes Pesa, SA	96	04
Donostia - Bilbao, Deba Garaia-Gasteiz lotura ..	"	95	12
Deba Beherea	Eusko Trenbideak, SA	95	07
Tolosaldea	Tolosaldea Bus, SL	94	02
Urola Kostaldea.....	Eusko Trenbideak, SA	94	06
Hondarribia - Irun.....	Autob. Urb. Irun - Fuenterrabía, SL	93	10
Olartzun - Pasai Donibane -Errearteria- Donostia	Herribus, SA	90	10
Beraun - Pasai San Pedro - Donostia - Hernani ..	Hijos de A. Areizaga, SA	90	10
BERRANTOLATU GABEKO LINEAK			
Tolosa - Andoain - Donostia	Cía. Tranvía de San Sebastián, SA	76	12
Deba - Lastur	Arteondo Autobusak, SL	67	07
Hondarribia - Irun - Donostia	Autobuses Interurbanos, SA	59	07
Zubieta - Lasarte - Donostia	Cía. Tranvía de San Sebastián, SA	55	09
Beizama - Nuarbe - Urrestilla - Azpeitia	Autocares Hnos. Escudero, SL	53	07
Pikoaga - Hernani - Donostia	Autobuses Garayar, SA	53	12
Andoain - Urnieta - Donostia	"	53	12
Andoain - Ospitale-hiria	"	53	12
Asteasu - Tolosa.....	Cía. Tranvía de San Sebastián, SA	53	09
Asteasu - Donostia	"	52	09

(*) Bizkaiko Foru Aldundiarekiko akordioz.

Garraioaren kontrola

Garraio lanetan aritu ahal izateko beharrezkoa da aldez aurretik GFaren baimena eskuratzea, "garraio txartelak" izeneko bidez. Txartel horiek bi urtetarako balio dute. Horrez gain, garraio bereziak egin ahal izateko baimen puntualak behar dira. 1998an 13.000 baimen eman ziren, Kontu Orokorraren datuen arabera.

Garraioaren ikuskaritzaren helburua lege araudia betetzen den ala ez egiaztatzea da, bereziki baimenei, gehieneko pisuari eta gidarien ordutegia betetzen den ala ez ikusteari dagokionez.

Horretarako, lehenik eta behin, Zuzendaritzak ibilgailuen takografoen egiaztapen sistematikoak egiten ditu. Hori egin ahal izateko takografoak eskatzen dizkie hautatutako garraio enpresei. 1998an 14.000 ikuskapen egin ziren.

Horrez gain, errepideetan bertan ere egiten dira ikuskapenak, bai Ertzaintzaren edo udaltzaingoaren bidez, zuzenean, eta baita Foru Aldundiko langileen bidez ere. Guztira 1.600 zigor espediente ireki ziren 1998. urtean.

A-8 autobideko bidesari soziala

Bidesari sozialaren bidez A-8 autobidea egunero edo oso maiz erabiltzen duten gipuzkoarrek beren gain hartu beharreko kostuak murriztu nahi dira, inguru hauetan bizi diren biztanleen mugikortasun baldintzak eta beste eskualde batzuetan bizitzeagatik errepide azkar eta bidesaririk gabekoez baliatzeko aukera dutenenak orekatzeko (N-1 errepidea Donostia eta Idiazabal artean eta A-15 autobia). 1997an Irun-Donostia arteko zatia bakarrik finantzatu bazen ere, 1998an autobidearen gipuzkoako zati osora zabaldu zen bidesari soziala.

Bidesari sozialaren onuradunek Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizi behar dute, eta jasotzen dituzten dirulaguntzak handiagoak dira egiten duten bidai kopurua handiagoa den neurrian. 1998an, aurkeztutako Kontu Orokorreko datuek adierazten dutenez, 25.000 onuradun txartel banatu ziren eta horren guztiaren kostua 724 milioi pezetakoa izan zen.

Garraiorako azpiegiturak

1998ko aurrekontuarekiko aldaketa bat dela eta 144 milioiko diru atala prestatu zen garraiorako azpiegituretarako orubeak erosteko, zehazki kamioiak aparkatzeko leku baterako. Gastua ez zen konprometitu izan, eta 1999ko aurrekontuan helburu hori duten aurrekontu kontsignazio osagarriak sartu dira. 2001. urtean gauzatzea espero da, 800 milioi pezeta inguruko inbertsio baten bidez.

Aurrekontuko eta Kontu Orokorreko informazioa eta adierazleak

AURREKONTUKO HELBURUAK ETA EKINTZAK

Helburuak	Ekintzak	Adierazleak	Aurrek.	erreal.
Programaren zuzendaritza eta koordinazioa	Bilerak	bilerak	40	35
	Aplikazio informatikoak	aplikazioak	3	3
Bidaiarien garraioaren kalitatea eta konpetitibitatea hobetzea	Zerbitzuaren baldintzen aldak.	bilerak	25	20
	Autobusak modernizatzeko laguntzak.....	autobusak	20	18
	Azpiegituren hobekuntza	markesinak	30	18
	"	bazterbideak	8	12
Taxi bidezko garraioa arrazionalizatzea	Arrazionalizazioa eta koordinazioa	lan-mahaiak	5	5
	"	bilerak	20	15
Merkantzien garraioa hobetzea eta azpiegiturez hornitzea	Azpiegituren hobekuntza	proiektuak	4	5
	"	aparkalekuak	2	2
	"	kontrol puntuak	3	3
	Fundazio baten sustapena	bilerak	10	5
	"	proiektuak	1	0
Garraioaren kudeaketa eta ikuskaritza era eraginkorrean garatzea	Informazio kanpainak	kanpainak	2	2
	Baskula eraikuntza	proiektuak	1	1
	"	baskulak	1	1
	Jarduerarako baimenak	baimenak	12.000	13.000
	Zigor espedienteak	espedienteak	2.400	1.600
Presentzia garraio sektorean	Azterlanak, ponentziak, batzordeak, bilerak ..	bilerak	50	50
N-1 Irun/Donostia arintzea	A-8 autobidearen erabiltzaileentzako dirulag.	onuradunak	16.000	25.000

II.2 ONDORIOAK

Bidaiarien garraiorako linea erregularren emakidak

Estatuko transferentziak egin ziren garaian 39 linea zeuden eta, orain, berriz, Departamentuak egindako berrantolaketaren ondorioz (konpainia zenbaiten artean bakar bat osatzea, ibilbideak bateratzea, etab.), 19 dira. Burututako arrazionalizazio horri egokia deritzogu. 1998. urtean ez da ez emakida berririk eman ez eta linea berrantolakuntzarik egin.

Etorkizunean hartzen diren erabakiak objektiboagoak izan daitezzen komenigarria izango litzateke Garraio Zuzendaritzak azterlan sistematikoak egitea bidaiarien garraio zerbitzuen egoera eta horien arteko integrazioarena aztertzeko (herri barruko eta herri arteko lineak, trenak, garraibide desberdinen geltokien koordinazioa, txartel bateratuak, etab.).

Komenigarria izango litzateke, bereziki, egon dauden lineen erabilera mailaren jarraipen sistematikoa egitea, linea berrien beharrik edo bikoizketa beharrik ba ote dagoen ikusteko, zerbitzuen maiztasuna hobetu behar den ikusteko, eskaintzen den zerbitzuak erabiltzailea zenbateraino gogobetetzen duen jakiteko, linea bakoitzaren geltokien egokiera aztertzeko, etab.

Garraioaren kontrola

Baimendutako gehienezko pisuak errespetatzen diren ala ez egiaztatzeko 4 baskula daude Gipuzkoako errepideetan (Zarautzen, Lasarten, Olaberrian, eta Andoainen. Azken hori 1998ko urte ekitaldian jarria). Horiez gain badira beste baskula mugikor batzuk ere.

Gaur egun dagoen baskula kopurua ez da aski benetako kontrol eraginkor bat egiteko, izan ere, ez dago baskula finkorik Debako industri arroan, esaterako, eta komeni litzateke urte askotarako plangintza bat egitea baskula gehiago jartzeko.

Garraioaren inguruan jartzen diren zigorrak neurri handi batean ez dira jasotzen, batik bat arau hausleak Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizi ez badira; 2000ko martxora arte 1998an izapidetutako espedienteen %41 baino ez zen kobratu, hau da, zigorren kopuru osoaren %23 (ehuneko horiek %61era eta %45era igotzen dira, hurrenez hurren, erreferentzia gisa zera hartzen bada: errekurtsoak ebatzita, errekurtsorik aurkeztu bada, tramitazioa bukatuta daukaten zigor espedienteengatik eska daitekeen kopurua).

Zor horien gaineko kudeaketa kontrol berezia egitea gomendatzen dugu, zigorrak zergatik ez diren ordaintzen zehatz-mehatz aztertzeko eta arazoari irtenbideak bilatzeko: bilketa exekutiborako hitzarmenak egitea beste administrazioekin, etab.

A-8 autobideko bidesari soziala

Bidesari sozialaren izapide administratiboa bi entitateren bitartez besterik ez da egiten.

Komenigarria litzateke beste entitate laguntzaile batzuri ere beren bezeroei bidesari sozialaren hobariak tramitatzeko aukera ematea.

Garraiorako azpiegiturak

Azpiegitura plangintza bat egitea gomendatzen dugu, egon dauden gabezien berri izateko (aparkaleku, garraio gune, baskula etab.) eta urteko aurrekontuak prestatzeko gida moduan balio izateko.

Aurrekontuko eta Kontu Orokorreko informazioa eta adierazleak

Aurrekontuan eta Kontu Orokorrean programa honen ekintzen inguruan ematen den informazioa zehatza eta egokia da.

Programa honen ekintzak baloratzeko ezarritako adierazleak zuzenak dira, orohar: finantzatutako autobus kopurua, eraikitako autobus geltoki berriak, aparkalekuak, ibilgailuak kontrolatzeko puntuak, baskulak, informazio kanpainak, administrazio baimen kopurua eta zigor espedienteak, bidesari sozialeko txartelak, etab.

Ekintzen adierazleak zenbait alderditan hobe daitezke:

- Autobusak berritzeko dirulaguntzak: autobusek batezbeste zenbat urte dituzten eta elbarriek erabiltzeko zenbateraino dauden prestatuak adieraziz.
- Autobus geltokien eraikuntza, kontrol puntuak, baskulak, etab.: azpiegituren alorrean zer behar dagoen ikusi eta lehenetsunekoak jotzen diren ekintza konkretuak aurrekontuan jasotzea.
- Baimenak eta zigorrak: zigor kopurua baino hobeto litzateke kudeaketan eraginkortasuna adierazten duten adierazleak bilatzea: berritzen ez diren baimenen jarraipena (jarduera era irregularrean egiten dela adieraz baitezake) ikuskaritza ekintzen kopurua, etab.
- Bidesari soziala: emandako onuradun txartelen kopurua baino hobe da erabiltzaile kopurua eta batezbesteko erabilera maila adieraztea.

Bestalde, Aurrekontuan eta Kontuan programaren helburuen betetze mailari buruzko informazioa agertu behar du, hau da, garraio jarduera Gipuzkoan tentsiorik eta arau hausterik gabe burutzea. Adierazle hauek era askotakoak izan behar dute, baina bistan da adierazle bat, zehazki, beharrezkoa dela, zigorrik jartzea ekarri ez duten ikuskapenen kopurua, hain zuzen.

III. 21 PROGRAMA. ERREPIDE ERAIKUNTZA ETA HOBEKUNTZA

III.1 ALDERDI OROKORRAK

21. Programan, Errepide Eraikuntza eta Hobekuntza, guztira 7.332 milioi pezeta gastatu ziren 1998. urtean, hots, Departamentuaren aurrekontuaren %58. Programa honetan 29 lagunek lan egiten dute eta gastu nagusia egindako inbertsioek osatzen dute, guztira 7.087 milioi pezeta (ikusi A2 eranskina).

Autonomi Estatutuaren 10.34. atalaren arabera, Foru Aldundiei dagokie oso-osorik errepide eta bideen inguruko eskumena.

Lurralde Historikoen Legea onartu zelarik, 7.8 atalean zera ezarri zen: Lurralde Historikoei beren errepide sareetan Errepide Plangintza Orokorrean ezarri eta Autonomi Elkarteko erakunde komunek onartutako arau tekniko eta seinalizazio arauak jarriko dituztela indarrean, eta, bestalde, Estatuko Errepide Sarearen jarraipen diren errepideetan nahiz Autonomi Erkidegotik kanpoko beste Ente Publikoetakoekin edo Lurralde Historikoen artekoekin elkartzen diren errepideetan, Errepideetarako Plangintza Orokorrean ezarritako aurreikuspen, helburu, lehentasun eta hobekuntzak egingo dituztela gutxienez.

Autonomi Erkidegoko, Estatuko, erkidegotik kanpoko Ente Publikoetako edo Lurralde Historikoetako plangintzetan lurralde historikoen edo horien mugakide diren beste lurraldetan, hurrenez hurren, eragina duten komunikazio bide berriak egitea aurreikusten denean, plangintza horiek koordinatu egingo dira, bakoitzari dagozkion ahalmen eta eskuduntzen arabera.

Errepide Plangintza Orokorra eta Lurraldeko Errepide Plangintza

1987-98 bitarterako Euskadiko Errepide Plangintza Orokorra 283/89 Dekretuaren bidez onartu zuen erkidegoko administrazioak, interes orokorreko errepideetarako. Plangintza hori burutzea lurralde historikoei dagokie beren aurrekontuez baliatuz.

Dekretu hori 355/92 Dekretuaren bidez eguneratu zen. Dekretu horretan 1993-2004 eperako aurreikuspenak aurkeztu ziren. Gaur egun 250/99 Dekretua dago indarrean, 2. Errepide Plangintza Orokorra, 1999-2010 arteko ekitaldiei dagokiena.

Horrez gain, foru administrazioak Lurraldeko Plangintza bat taxutzen du lurralde barruko errepideetarako. Horren aurrerapena 1994an argitaratu zen, eta 1998an jendearentzako argibideetarako plazaratu. Plangintza hori oraindik ere behin betiko onartzeko zegoen eskuartean dugun azterketa hau egiten ari ginela (2000ko maiatzean).

Errepide plangintzen helburuak

1992an Errepide Plangintza Orokorra berraztertu zenean helburu oso handi-nahizkoak finkatu ziren, osorik burutzen zirelarik Nafarroako autobiarekin batera lurraldea antolatzen duten bi ardatz bertikalak (N-1 eta Eibar-Gasteiz) eta bi ardatz horizontalak (A-8 autobidea eta Beasain-Durango ardatza):

- N-1 errepidea: Gipuzkoako lurralde osoan bikoiztea, Etxegarateko gaineraino.
- Eibar–Gasteiz autobia: autobia osoa egitea.
- Beasain–Durango zeharkako ardatza: ibilbide guztia konpontzea, Zumarragara arteko autobia eta Deskargako tunela sartuta.
- Nafarroako autobia: geratzen zena bukatzea.

Lurraldeko Plangintzak, 1994ko aurrerapenean, aurreko lan horiekiko osagarriak ziren hainbat lan proposatzen zituen. Horietako garrantzitsuenak, Azkoitiko, Hernani iparraldeko eta Ibarako saihezbideak. Lurraldeko Plangintzaren laburpen taulan Azkoitia-Elgoibar errepidea ere sartu dugu, izan ere 1992-1996 urte artean eraiki zen, 1994ko aurrerapenean sartu gabe egon arren.

Aurrekontuko eta Kontu Orokorreko informazioa eta adierazleak

AURREKONTUKO HELBURUAK ETA EKINTZAK

Helburuak	Ekintzak	Adierazleak	Aurr.	Erreal.
Hasitako lanekin jarraitzea	Lanen zuzendaritza eta kontrola	lanak	16	18
	Ziurtapena eta kitapena	ziurtapenak	120	140
	“	kitapenak	10	8
Programatutako lanei ekitea	Lizitazioa eta esleipena	lanak	6	10
	Lanen zuz. eta kontrola, laguntza teknikoa...	kontratuak	5	5
	Ziurtapena eta kitapena	ziurtapenak	40	50
	“	kitapenak	1	1
Plangintzearako beharrezkoak diren azterlanak eta aurregitasmoak egitea	Azterlan eta egitasmoen oinarriak idaztea	azterlan eta egitasm.	10	12
	Azterlan eta egitasmoen lizit. eta enkargua ...	enkarguak	10	12
	Zuzendaritza eta jarraipena	abonuak	40	60
Eibar–Gasteiz eta Etxegarate egitasm.	Egitasmoen jarraipena	egitasmoak	2	2

III.2 ONDORIOAK

Errepide plangintzen exekuzioa 1999 arte

Atal honen bukaerako taulan ikus daitekeen moduan, Plangintza Orokorrean 1993-99 bitarterako aurreikusitako inbertsioak 180.000 milioi pezeta ingurukoak ziren (gutxi gorabeherako kopurua da, lanen bat lehenago hasia baitzen). Kopuru hori ezin lor daiteke gaur egungo inbertsio mailen bidez, 1998. urtean, esaterako, 8.600 milioi ingurukoak baitziren (kopuru horretan Eibar–Gasteiz autobiarako eta Etxegarateko bikoizketarako gordetakoak sartzen delarik).

Hori dela eta, ez da harritzekoa 1999ko ekitaldia ixterakoan plangintzaren burutze maila %34koa bakarrik izatea. Eibar–Gasteiz autobia kenduta ere, zeinarentzat finantzaketa berezi bat lortzea espero baitzen hasieran, exekuzioa %62koa izango zen.

Lurraldeko Plangintzan ere urteko inbertsioak, 1.000 milioi pezeta ingurukoak, ez dira aski izan proposatutako inbertsioak burutzeko.

Une honetan, 1999an onartutako 2. Errepide Plangintza Orokorrak 1999-2010 eperako 183.700 milioi pezetako gastua aurreikusten du eta, horrenbestez, badirudi aurrerantzean ere jarraituko duela eskuragarri dagoen finantziazioaren eta egindako planifikazioaren arteko desorekak.

Errepide plangintzak ekintza konpromisua eskatzen du, eta erkidegoko administrazioak ez zukeen onartu behar horrek berarekin dakartzan finantzazio erabakiak zehaztu gabe.

Hori horrela izanik ere, esan beharra dago urte bakoitzerako erabilgarri dauden aurrekontu kredituen exekuzio maila altua dela, A2 eranskinean ikus daitekeen moduan.

Aurrekontu kontularitza

Errepideetako inbertsioaren kontularitza, orohar, lan bakoitzerako partida indibidualen bidez egiten da. Dena den, badira bi partida orokor “hainbat lan” izenekoak, bat Plangintza Orokorreko eta bestea Lurraldeko Plangintzarako. Bi partida orokor horietan ekitaldian esleitzeko asmoa dagoen lanak aurrekontuan jaso eta erregistratzen dira, bai eta egiten ari diren lanen osagarriak eta bestelako gastu txikiagoak ere.

Bestalde, lanen kontularitzan ez dira beti irizpide ongi definituak erabiltzen, eta zenbait kasutan gertatzen da obra nagusi batek linea desberdindu bat izatea baina haren zati bat partida orokorretan sartua agertzea (hori gertatu da, orohar, saldo erantsiekin).

Gaur egungo kontularitza-informazioa hobetu behar da, ekitaldiaren barruan egin asmo diren lanetarako linea indibidualak irekiz eta aldaketak eta egitasmo osagarriak inbertsio nagusiaren linean edo, hala badagokio, linea independente batean kontabilizatuz.

Aurrekontuaren memoriak ez ditu egitasmoka banakatzen aipatutako “hainbat lan” ataleko partidetan onartutako konpromezuzko kredituak.

Kreditu horiek urte anitzetarako inbertsioetarako onartzeak eskatzen du Aurrekontuaren memorian ongi identifikaturik agertzea. Aurreko gomendioa betez gero gabezia hau konpondu egingo litzateke, urteko edo urte anitzetako inbertsio bakoitzerako partida bereziak aurkeztea proposatzen baita.

Aurrekontuko eta Kontu Orokorreko informazioa eta adierazleak

Aurreikusitako lanei buruz Aurrekontuan agertzen den informazioa eta egindako lanei buruz Kontu Orokorrean agertzen dena oso zehatza da. Dena dela, ez da aipatzen Plangintza Orokorren eta Lurraldeko Plangintzaren burutze maila, eta hori kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsua izan beharko luke. Departamentuak ere ez du informazio hau sistematikoki lantzen eta, horrenbestez, laburpen-taulak prestatzea korapilatsua izan da HKEErentzat.

Era berean, programatutako ekintzen definizioa ez da egokia, adierazle gisa lan kopurua, ziurtapenak, kitapenak, kontratuak eta abar agertzen direlako, onartutako plangintzarekin duten lotura azaldu gabe.

Programaren jarduerari buruzko informazioa Plangintza Orokorren eta Lurraldeko Plangintzaren exekuzioan oinarrituta egon behar du, eta Aurrekontuan konprometitutako ekintzek, aurrekontuan sartzen diren egitasmoak osorik ala zatika bete diren adierazi beharko lukete.

ERREPIDE PLANGINTZA OROKORRA (1999ko abenduan)

Milioi pezeta

	____Hasi.-buk. eguna____		Hasteko atze-	Exekuzioa	Aurreik.
	92ko aurreik.	erreal. 99ko aurreik.	rapen urtea	99ko aben.	zenbat.(*)
A-8 Autobidea					
Landetxa (Irun)/A-8 lotura	94-95	95-98	1	1.424	
Nafarroako autobia					
Aduna – Nafarroako muga autobia	91-95	91-96	0	31.931	
N-1 Errepidea					
Ordizia - Idiazabal iparralde bikoizketa	90-93	91-95	1	2.148	
N-1 lotura Lasarten eta A-8 Aritzetan	94-95	97-00	3	4.274	
Añorga txikiko bira ezkerretara	93-94		00-01	7	200
Billabonako bira ezkerretara	93-94	94-97	1	1.568	
Loiolako korapiloa handitzea	95-95		08-10	13	720
Herrera – Intxaurren lotura A-8an	99-00	97-98	(2)	538	
6 erreietara handitzea Aduna - Bazkardon	99-00		03-05	4	1.300
Etxegarateko saihebidia, 1. fasea	95-97	94-96	(1)	546	
Etxegarateko saihebidia, 2. eta 3. faseak	97-99	97-97-01	0	914	11.086
Urumeako autobia					
Astigarraga - Hernani	99-01		99-01	0	1.100
Loiola - Astigarraga	95-98		02-03	7	2.300
Eibar – Gasteiz autobia					
Eibar – Gasteiz autobia	93-98	99-99-04	6	2.075	83.065
Beasain – Durango zeharkako ardatza					
Urretxu-Zumarragako ekialdeko saihebidia	93-94	92-95	(1)	1.217	
Epeleko saihebidia Kanpazarretik	93-94	92-94	(1)	1.772	
Zumarragako hegoaldeko saihebidia	95-96		05-07	10	1.320
Anzizarreko lotura	93-94	93-96	0	1.361	
Anzizar - Gabiria/Alegia autobia	94-95	95-98	1	3.605	
Gabiria/Alegia - Zumarraga	98-00		03-04	5	4.000
Bergara - Zumarraga, Deskargako tun. eta Antzuolako sai.	98-00		07-09	9	5.450
Egokitze lanak					
Ezkererako birak kentzea Herrera - Irunen	93-98	94-94	1	195	
Bide motelak egok. Usurbil - Lasarte, Txikiardiko bideg.	93-94	95-96	2	171	
Bide motelak egokitzea Usurbil - Lasarten	93-94		02-04	9	604
Bide motelak egokitzea Elgoibar - Maltzagan	93-94	94-96	1	605	
Zarauzko zeharbidea	99-00		02-04	3	500
Lazkao – Ataun egokitzea	99-00		03-05	4	180
Arrasate - San Prudentzio eta GI-2630 elkarg. egokitzea ...	95-96		00-01	5	360
Maltzaga, N-634 elkargunea	93-93	94-95	1	59	
Herrietako saihebidiek					
Erreterriako saihebidia	93-96	96-00	3	4.389	
Pasaiaiko saihebidia	95-96		00-02	5	960
Zumaiako saihebidia	99-00		02-04	3	450
Orioko saihebidia	99-00		01-04	2	1.100
Eibarko saihebidia, 2. fasea eta Torrekuako lotura	93-95	93-96	0	1.723	
Eibarko saihebidia, 3. fasea	99-00		05-07	6	2.150
Andoaingo saihebidia	97-98		02-04	5	780
Urdietako saihebidia	96-97		02-04	6	660
Hernani hego-ekialdeko saihebidia	94-95	98-98-01	4	556	1.485
Guztira Plangintza Orokorra				61.071	119.770


LURRALDEKO ERREPIDE PLANGINTZA (1999ko abenduan)

Milioi pezeta


	___Hasi.-buk. eguna___		Hasteko atze-	Exekuzioa	Aurreik.
	94ko aurreik.	erreal 98ko aurreik.	rapen urtea	99ko abend.	zenbat. (*)
Oinarrizko sarea					
GI-631: Azkoitiko saihsbidea	95-98	98-00	3	1.196	
GI-638: Mutrikuko saihsbidea	95-98		02-04		276
Loiolako 22. eranskina urbanizatzea	-	98-	98-01	314	1.447
Donostialdea					
GI-2132: Lasarte - Galarreta, zabalkuntza	95-98		99-01	4	535
GI-2132: Hernani iparraldeko saihsbidea	95-98		08-10	13	1.512
GI-3671: Astigarragako bentak - Errenteria	95-98		99-01	4	108
Bidasoa Beherea					
GI-2634: Letxunborro hirib.,Txumarragako glorieta (Irun) ..	-	99-99		94	
GI-2634: Letxunborro hiribidea (Irun)	-		99-01		307
Tolosaldea					
GI-2130: Ibarra - Berrobi	95-98		02-04	7	232
GI-2130: Ibarako saihsbidea, 1. fasea	95-98	97-00		2	937
GI-2130: Ibarako saihsbidea, 2. fasea	95-98		99-01	4	691
GI-2631: Zizurkilgo saihsbidea, zeharbidearen hobek.	99-02	99-99		0	32
GI-2631: Zizurkilgo saihsbidea	99-02		02-04	3	308
Bestel. txik.: Asteasu, Belauntza, Leaburu, Gaztelu, etab. ...					82
Goierra					
GI-2133: Zaldibiko saihsbidea	95-98		99-01	4	324
GI-2630: Legazpiko saihsbidea	95-98	98-00		3	203
GI-2637: Segurako saihsbidea	95-98	98-99		3	370
Bestel. txikiagoak: Gabiria - Ormaiztegi, Zaldibia - Egiluz ...					95
Urola-Kostaldea					
GI-2634: Azkoitia - Elgoibar	-	92-96		5.767	
Bestelako txikiagoak: Olaso (Azkoitia) eta Pagoeta					55
Deba Beherea					
Bestelako txikiagoak: Calvario - Astigarribia					66
Deba Garaia					
GI-2620: Garagartza - Gesalibar (Arrasate)	95-98	96-97		1	221
GI-2639: Elgetako saihsbidea	95-98		02-04	7	432
GI-3360: Angiozar - GI-2639 (Bergara)	95-98		99-01	4	108
Bestel. txikiag.: Izurieta (Aretxabaleta) eta Araotz (Oñati) ...					59
Guztira Lurraldeko Plangintza				9.216	7.044

(*) Aurreko taula horietan, aurreikusitako zenbatekoa, orohar, dagozkion plangintzetan agertzen denari dagokio: Plangintza Orokorraren 92ko berrazterketa eta Lurraldeko Plangintzaren 94ko aurrerapena. Exekuzio lanetan esleipenaren zenbatekoaren eta 1999ko abendura arte exekutatuak diren arteko alde adierazten da. Kasu guztietan lanaren exekuzioa aipatzen da bakarrik, egitasmoen, desjabetzapenen, lanen zuzendaritzaren eta abarren kostua sartu gabe.

ERREPIDE PLANGINTZA OROKORRA, 93-99



LURRALDEKO ERREPIDE PLANGINTZA, 95-99



IV. 22. PROGRAMA. ERREPIDEEN ZAINKETA ETA USTIAPENA

IV.1 ALDERDI OROKORRAK

22. programan, Errepide Zainketa eta Ustiapena, guztira 3.782 milioi pezeta gastatu ziren 1998. urtean, hots, Departamentuaren aurrekontuaren %30. Programa honetan 93 lagunek lan egiten dute, eta gastu nagusia inbertsio kapitulari dagokio, 3.029 milioi hain zuzen (ikus A2 eranskina).

Baliabide propio bidezko errepide zainketa

Gero eta garrantzi erlatibo txikiagoa du errepide zainketaz Departamentuko giza baliabideak eta baliabide teknikoak erabiliz arduratzea; 1998an lehen eta bigarren mailako sare lokalean bakarrik egin da lan baliabide propioak erabiliz. Orohar lan arruntak izaten dira, kontratatzeke zailak edo noizean behin egin beharrekoak direnak (bideak negurako prestatzea, lan txikiak egitea, zuloak konpontzea, hostoak biltzea, errepide bazterretako landaretza garbitzea, etab.)

Kontrata bidezko errepide zainketa

Lan egiteko modu honek gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da, eta 1998an aipatzekoa da N-1 errepidearen eta A-15 autobiarren mantenimendu osorako urte anitzetako kontratuaren esleipena. Kontratuaren iraupena 4 urtekoa da eta horren zenbatekoa 2.211 milioikoa izatea jotzen da. Kontratu mota honek, gero eta ohizkoagoa izango denak, zera barne hartzen du: kontratistari ordaintzea, alde batetik, kopuru finko batzuk, kontratatutako langileengatik edo beharrezko inbertsioen amortizazioengatik eta, bestetik, beste kopuru aldakor batzuk, benetan egindako lanen araberakoak.

Aurrekontuko eta Kontu Orokorreko informazioa eta adierazleak

AURREKONTUKO HELBURUAK ETA EKINTZAK

Helburuak	Ekintzak	Adierazleak	Aurrek.	Errealak
Errepideen mantenimendua	Baliabide propio bidezko zainketa	kilometroak	300	300
	Kontrata bidezko zainketa, sistema integrala .	kilometroak	100	100
	Kontrata bidezko zainketa, bestelakoak	kilometroak	850	850
	Fabrika gastuak, egiturak eta estabilizazioak..	metroak	1.500	1.650
	Lur berdinketak, drenajeak, margo-lanak, e.a.	kilometroak	100	100
	Bidezorua sendotzea eta hobetzea	kilometroak	100	110
	Seinalizazioa araudi berriarekiko egokitzea	kilometroak	50	40
Errepideen ustiapena	Neguko biabilitate lanak	ekintzak	200	250
	Inst. mantenim. argiztapena eta ponpaketa...	tunel m	13.900	13.900
	"	argiztapen km	45	50
	"	ponpaketak	3	3
	Arrisku indize, istripu, aforo plana	kilometroak	500	650
	Errepideen erabilera kontrola	kalteen esped.	1.700	1.790
	"	salaketak	250	218
Bide segurtasuna hobetzea	"	baimenak	850	828
	Puntu arriskutsuak eta elkarguneak hobetzea	puntuak	5	12
	Zeharbideak egokitzea.....	puntuak	3	3
	Seinaleak eta balizak zaintzea eta hobetzea...	kilometroak	800	800

IV.2 ONDORIOAK

Baliabide propio bidezko zainketa

Gaur egun bidezainen lana kontrolatzeko erabiltzen den eredua oso deszentralizatua dago, eta egindako lanei buruz langile-buruek GFARI ematen dioten informazioan oinarritzen da. Hori berraztertu egin beharko litzatekeela iduritzen zaigu, lanen inguruko plangintza eta kontrola eta langile kudeaketa koadrilen dinamikatik kanpo dauden langileek egin dezaten.

Aurrekontuko kontularitza

Errepideen zainketa eta hobekuntzarako egiten den inbertsioen kontularitza "hainbat lan" izeneko partida bakar baten bidez egiten da gehienez, 1998an 2.894 milioi pezetako gastua izan duena.

Partida horren garrantzi ekonomikoa eta GFAREN ondare-kontularitzarekin dituen lotura betekizunak kontuan hartuta, Gipuzkoako errepide nagusien zainketa erregistratzeko kontularitza partida desberdinak irekitzea gomendatzen dugu.

Aurrekontuan eta Kontu Orokorrean ez da agertzen “hainbat lan” izeneko diru-partidan baimendutako konpromezuzko kredituen egitasmokako banakapena. Horren zenbatekoa 1998an 2.970 milioi pezetakoa izan da (kontratu nagusia izan ezik, “N-1 errepidearen eta A-15 autobiarene zainketa integrala”, 2.545 milioi pezetako aurrekontua duena).

Urte anitzetarako inbertsioetarako kredituak onartzeak eskatzen du kreditu horiek Aurrekontuaren eta Kontu Orokorrearen memorian identifikatzea. Aurreko gomendioa betez gero hutsune hori saihestuko litzateke, partida bereziak aurkeztea proposatzen duelako.

Aurrekontuko eta Kontu Orokorreko informazioa eta adierazleak

Errepide zainketaren inguruan aurreikusitako ekintzei buruz ematen den informazioa nahiko orokorra da, eta gero zehaztu egiten da ekitaldiko Zainketa Plangintzan. Plangintza horrek barruko izaera du eta oso-oso zehatza da. Kontu Orokorrak egoki ematen du egindako ekintzen berri.

Aurrekontuko ekintzen adierazleak ez dira egokiak, izan ere datu orokorrei buruzko informazioa ematen dute, hala nola, zenbat errepide-kilometrotan esku hartzen den, zenbat puntutan esku hartzen den, etab.

Errepideen mantenimendu jarduera errepikariak estandarizatu egin beharko lirateke eta jarraipen informatikoa eman, errepide eta kilometro zati bakoitzean egindako lanak identifikatzeko modua izateko, bai kanpoko kontratazio bidez egindakoak eta baita baliabide propioen bidez egindakoak ere.

Horrek aurrekontua era objektiboagoan egiteko aukera emango luke, ekitaldian burutu beharreko ekintzak indibidualizatuz.

V. BESTELAKO PROGRAMA APALAGOAK

V.1 ALDERDI OROKORRAK

II. eta IV. idatz zatietan deskribatutako hiru programez gain, horiek direlarik Errepide eta Garraio Departamentuak landutako jarduera nagusiak, badira beste hiru programa. Programa horiek apalagoak dira eta, guztira, Departamentuaren gastuaren %3 hartzen dute. Hauek dira:

- 01. Zerbitzu Orokorrak: Foru diputatuaren eta Idazkaritza Teknikoaren gastuak.
- 20. Errepide Zuzendaritza: programa instrumental honek Errepide zuzendariaren gastuak hartzen ditu bere gain, baina ez haren menpe dauden zerbitzuenak, eta Plangintza eta Araugintza Teknikoko Zuzendariordetzarenak ere bai, haren menpeko unitateena alde batera utzita.
- 23. Lurzoruaren Plangintza eta Kudeaketa: goian aipatutako Zuzendariordetzaren menpe dauden unitateen jarduera sartzen da hemen. Hauek dira garrantzitsuenak: Lurraldeko Errepide Plangintzaren idazketa, Plangintza Orokorra Eusko Jaurlaritzarekin aztertzea, desjabetzapenen kudeaketa eta errepideekin lotutako ondarea mugatu eta mugarriztatzea.

V.2 ONDORIOAK

Programak definitzeko irizpideak

Goian aipatu bezala, Departamentuaren hiru programa hauek, guztira sei direlarik Departamentuan lantzen diren programak, gastu osoaren %3a baino ez dute eragiten.

Nahiz eta programa nagusien artean nekez inputa daitezkeen kontzeptuetarako programa apalagoak izatea beharrezkoa gerta daitezkeen, hiru programa hauek **bakar batean sartu beharko liriateke**, “zerbitzu orokorrak” izeneko batean, eta gainerako programei esleitzea bereziki zail gertatzen diren gastuak bakarrik sartu beharko liriateke bertan.


INTRODUCCIÓN

El presente informe, incluido en el Programa Anual de Trabajo marzo 1999-marzo 2000 del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas-TVCP, analiza:


- la actividad en el ejercicio 1998 del Departamento de Transportes y Carreteras de la Diputación Foral de Gipuzkoa-DFG, y
- la ejecución de los planes de carreteras hasta diciembre de 1999.

El gasto del Departamento ascendió en 1998 a 12.640 millones-ptas, lo que supone el 23% del gasto de la DFG, y las inversiones realizadas fueron de 10.239 millones-ptas, el 63% de las inversiones totales de la DFG en el ejercicio.

DFG 98: GASTOS



DFG 98: INVERSIONES



El objetivo de este informe es describir y analizar la gestión del Departamento, a partir de las actuaciones previstas en sus presupuestos y en los planes plurianuales de actuación (planes de carreteras). Para ello, el apartado I ofrece una descripción de los datos generales del Departamento: sus actividades, estructura orgánica, programas presupuestarios, y gastos del ejercicio 1998.


A continuación, se analizan los tres principales programas de actuación, describiendo sus actividades y proponiendo algunas recomendaciones para su mejora. En cada apartado se destina un epígrafe a valorar la calidad de la información que el Presupuesto y la Cuenta General presentan sobre cada programa.

I. DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y CARRETERAS

Estructura orgánica

La estructura orgánica del Departamento de Transportes y Carreteras era la siguiente en 1998 (ha sido modificada en el ejercicio 2000):

ESTRUCTURA ORGÁNICA



NOTA: los números indican el programa presupuestario al que se imputa la unidad orgánica.

Actividades

- La Dirección de Transportes planifica y controla los servicios de transporte por carretera de mercancías y viajeros en el territorio de Gipuzkoa.
- La Dirección de Carreteras se encarga de la construcción de nuevas carreteras y de la conservación de las existentes. Además, incluye en su estructura una subdirección encargada de las tareas de planificación y de las expropiaciones.
- La Secretaría Técnica depende directamente del Diputado Foral, y se responsabiliza del desarrollo de la normativa legal, del asesoramiento jurídico, y de la gestión de personal, presupuestaria y contable.


Programas y ejecución del presupuesto

La ejecución de los programas presupuestarios del Departamento en 1998 ha sido:

EJECUCIÓN DEL PRESUPUESTO							Millones-ptas		
Programas	Plantilla (*) Anexos > A1	Gastos (fase O)				Total A2	Gtos futuros (fase D) A3	Ingre- sos A4	
		cap.1	cap.2	cap.6	c.4 y 7				
10. Dirección de Transportes	17	87	10	38	999	1.134	-	120	
21. Construcción y mejora de carreteras	29	209	11	7.087	25	7.332	7.875	1.179	
22. Conservación y explotación de carreteras	93	457	296	3.029	-	3.782	2.443	149	
Otros menores									
01. Servicios generales	19	112	19	39	-	170	-	-	
20. Dirección de Carreteras	8	46	33	26	27	132	-	-	
23. Planificación y gestión del suelo	9	67	3	20	-	90	-	1	
Total departamento	175	978	372	10.239	1.051	12.640	10.318	1.449	

(*) Plantilla media efectiva, o número de personas que trabajaban para el programa en 1998.

GASTO



II. PROGRAMA 10. DIRECCIÓN DE TRANSPORTES

II.1 ASPECTOS GENERALES

El programa 10. Dirección de Transportes, con un gasto en 1998 de 1.134 millones-ptas, supone el 9% del presupuesto del Departamento. Su plantilla es de 17 personas, y el gasto más importante son las subvenciones concedidas (ver anexo A2):

SUBVENCIONES 98	Tipo	Millones-ptas	
		Gasto ejecutado (fase O)	Compro-misos (D – O)
Tolosaldea, SL, líneas deficitarias	Nominativa	33	8
Peaje social de la autopista A-8	DF 83/97	724	-
Otras menores.....		4	7
Transf. y subvenciones corrientes		761	15
Ayuntamientos, paradas de autobuses.....	DF 28/96	30	25
Empresas, modernización de la flota de autobuses..	DF 29/96	153	77
Goierrialdea, SL, por gastos de implantación.....	Nominativa	29	-
Tolosaldea, SL, modernización de la flota.....	Acuerdo C. Diputados	26	-
Transf. y subvenciones de capital		238	102
Total subvenciones		999	117

Concesiones de líneas regulares de transporte de viajeros

La Dirección de Transportes controla las concesiones de líneas interurbanas de autobuses cuyo recorrido transcurre total o principalmente en Gipuzkoa, y concede ayudas a las empresas concesionarias para la modernización de los vehículos y para hacer posible su utilización por personas con minusvalías.

Los concesionarios no reciben de la Diputación, ni ingresan a la misma, cantidad alguna, salvo las subvenciones antes mencionadas, con dos excepciones:

- Tolosaldea Bus, SL: tiene concedidas ayudas de 41 millones-ptas para compensar el déficit generado por tratarse de una comarca con núcleos urbanos pequeños y muy diseminados, y 26 millones-ptas para la renovación de la flota.
- Goierrialdea, SL: se reordenó en 1997 y ha tenido en 1998 una ayuda especial de 29 millones-ptas que completa la cobertura de los gastos iniciales de implantación.

CONCESIONES DE LÍNEAS DE AUTOBUSES

Concesión	Concesionario	Año concesión o reordenación	Año final
LÍNEAS CON REORDENACIONES			
Comarca de Goierrialdea	Goierrialdea, SL	97	09
Oñati - Bilbao - Leioa (*)	Transportes Pesa, SA	96	04
Donostia - Bilbao, Alto Deba conexión Vitoria ..	"	95	12
Comarca del Bajo Deba	Eusko Trenbideak, SA	95	07
Comarca de Tolosaldea	Tolosaldea Bus, SL	94	02
Comarca de Urola Costa	Eusko Trenbideak, SA	94	06
Hondarribia - Irun.....	Autob. Urb. Irun - Fuenterrabía, SL	93	10
Olartzun - Pasai San Juan - Rentería - Donostia.	Herribus, SA	90	10
Beraun - Pasai San Pedro - Donostia - Hernani..	Hijos de A. Areizaga, SA	90	10
LÍNEAS SIN REORDENACIONES			
Tolosa - Andoain - Donostia	Cía. Tranvía de San Sebastián, SA	76	12
Deba - Lastur	Arteondo Autobusak, SL	67	07
Hondarribia - Irun - Donostia	Autobuses Interurbanos, SA	59	07
Zubieta - Lasarte - Donostia	Cía. Tranvía de San Sebastián, SA	55	09
Beizama - Nuarbe - Urrestilla - Azpeitia	Autocares Hnos. Escudero, SL	53	07
Pikoaga - Hernani - Donostia	Autobuses Garayar, SA	53	12
Andoain - Urnieta - Donostia	"	53	12
Andoain - Ciudad Sanitaria.....	"	53	12
Asteasu - Tolosa.....	Cía. Tranvía de San Sebastián, SA	53	09
Asteasu - Donostia	"	52	09

(*) Por acuerdo con la Diputación Foral de Bizkaia.

El control del transporte

El ejercicio de la actividad de transporte está sujeto a autorización previa de la DFG, a través de las denominadas "tarjetas de transporte", válidas por períodos de dos años. Además, los transportes especiales están sujetos a autorización puntual para su ejercicio. El número de autorizaciones concedidas en 1998, según los datos de la Cuenta General, ha ascendido a 13.000

La inspección del transporte tiene como finalidad comprobar el cumplimiento de la normativa legal, especialmente en lo referido a la autorización, pesos máximos, y cumplimiento del horario por los conductores.

Para ello, en primer lugar, la Dirección hace comprobaciones sistemáticas de los tacógrafos de los vehículos, solicitando los mismos a las empresas de transportes seleccionadas. Las revisiones realizadas en 1998 han sido 14.000.

Además, se realizan actuaciones de inspección en las carreteras, ya sea directamente por la Ertzaintza o policía municipal, o con participación del personal de la Diputación Foral, con un total de 1.600 expedientes sancionadores en 1998.

El peaje social de la autopista A-8

